

Lea Artibaiko II. Turismo topaketak 2007



BALORAZIOA

Lea Artibaiko Garapen Agentziak II. Turismo Topaketak ospatu ditu 2007ko azaroan. Ekimena, eskualdeko sektore turistikoaren gaineko formakuntza oinarrituta egon da eta bertoko baliabide turistikoak kontuan hartuta, turismoa gehitzeko produktu berrien sorkuntza bultzatu da.

Turismo enpresen egunerokotasuna eta gaur egun lan eritimoak ez digu uzten hausnarketak egiten. Horregatik, merezi da urtean behin topaketa bat sortzea eta Lea Artibaiko turismoari buruz hitz egitea.

Eskualdeko turismoa indartzearen aldeko apustua egin du Garapen Agentzia honek azaroaren 12an eta 22an antolatutako topaketetan. Funtsean, egitasmoaren helburuak bertoko sektorearen dinamizazioa, elkarteetako parte-hartzea indartzea eta eremu pribatu zein publikoen arteko elkarlana bilatzea izan da.

Lehenengo egunean, Jose M^a Cazalis Lekeitioko Alkateak egin zuen aurkezpena, eta Ines Cibriane, Alava Incoming Turismo Enpresen Elkartearen gerentea, produktu sorrera, promozioa eta merkaturatzeari buruz hitz egin zuen, bere elkartearen esperientzia azalduz. Enrique Hernaezek, STI enpresako zuzendariak, Eskualdeko baliabideetatik abiatuz, produktuaren sorrera, promozioa eta merkaturatzeari buruz hitz egin zuen.

Azken egunean, Ainara Basurko, Lea Artibai Garapen Agentziako gerentearen aurkezpenaz, Victoria Bascones, Euskaliteko teknikaria, praktika onen gidaliburuari buruz aritu zen, kalitatearen munduan eman ditzakegun lehen urratsak aurkezteko asmoz.

ONDORIOAK

• **INES CIBRIAN - ALAVA INCOMING** Alava Incoming Turismo Enpresen Elkarteak: **Produktu sorrera, promozioa eta merkaturatzea.**

• **Sorrera** → Kongresuak egiterakoan, elkarlanean aritzeko aukera ikusi zuten.

• **Hasieran** → Lehenengo 3 urtetan kudeaketa zuzena egin zuten, baina arazoak sortu ziren: Denen arteko lotura sendotu nahi zuten.

• **Sektore ezberdinetako elkarteak** → Enpresa tipologia desberdinak. Balorazio ona.

• **Lanak** → Katalogo bezero profesionaleri zuzenduta, erreserbak egitea, eskaintzak, sariak ...

• **Abantailak** → Bezeroak erakartzeko aukera gehiago, elkarren arteko informazio fluxuak indartu, koste baxua.

• **PRODUKTUA** → Produktu bat sortzen dute enpresa desberdinen artean eta agentzien bitartez merkaturatzen dute. Ekintza desberdinak (gabonak, kirola...) erabiltzen dute paketeak egiteko: Gabonak, jaiak... Enpresa batek ahal du eskaini pakete oso bat.

• **Agentziekin lanean** → Komisio bat eramaten du, baina promozioa urte osoan egiten da (kobratu bakarrik saltzen duenean). Web orrian ahal da saldu produktua.

ENRIQUE HERNAEZ - STI. Lea Artibaiko baliabideetatik abiatuta turismo produktuaren sorrera. **Promozio eta merkaturatzea.**

• **Baliabideak/aktiboak + turismo enpresak** → Helmuga sortzen da. Baina, edozein kasuan, oso garrantzitsua da helmugak ematen duen irudia.

• **Kontutan hartu behar da ere helmuga** (komunak); hau da, eskualdea txikia eta ezezaguna bada, merkaturatzeko orduan komeni da beste helmuga handiekin batera saltzea; adibidez, Lea Artibairen kasuan, Bilboko eskaintzaz batera. Horrela, merkaturatzea zabaldu egiten da.

• **Merkaturatzeko orduan**, bi erara egin daiteke: Zuzenean edo agentzia baten bidez. Bigarren kasuan, errazago da bezeroengana heltzea, zeren eta bideak zabalik daude.

• **Agentziak irabaziaren % txiki bat hartzen du**, baina bakarrik saltzen duenean. Bestalde, promozioa urte osoan zehar egiten da, eta hau ere kontutan hartu behar da.

• **Saltzeko orduan**, paketeak egin daitezke enpresen produktu desberdinekin.

VICTORIA BASCONES- EUSKALIT. **Turismo arloan praktika onak gidaliburua.**

• **Praktika onak** prozesua modu on bat da kalitate munduan sartzeko. Esfortzu txiki batekin, kalitatearekin konpromiso bat lortzea posible da.

• **Programa 4 fasetan banatzen da:** Sentsibilizazioa, formazioa, autoebaluazioa eta balorazioa.

AZKEN ONDORIOAK

Jardunaldi hauen bidez, gure helburu nagusia sektorearen lehiakortasunean sakontzea izan da. Horregatik, bi egunetan zehar aztertu dugu gure enpresak kudeatzeko eta elkarlanean proiektuak garatzeko aukera desberdinak. Jardunaldi bien ondorio nagusia zera izan da, eta horretarako Victoria Bascones-ek erabilitako esaldi bat erabiliko dugu: "Remar en el mismo sentido". Lea Artibai eskualdeak potentzial handia du turismo arloan, eta helmuga indartzeko enpresak indartu egin behar dira eta denen arteko loturak sendotu egin behar dira, bai enpresen artean, bai erakunde publiko eta pribatuaren artean.



II. Encuentros sobre turismo de Lea Artibai

El objetivo principal de los II. Encuentros de turismo de Lea Artibai ha sido profundizar en la competitividad del sector turístico. Por ello, durante dos días se han analizado diferentes opciones para la gestión de las empresas y para desarrollar proyectos en común. La principal conclusión de ambas jornadas ha sido la siguiente (y para ello tomamos prestada una expresión que usó Victoria Bascones en su ponencia): "Remar en el mismo sentido" Lea Artibai tiene un gran potencial turístico, y para fortalecer el destino es necesario fortalecer sus empresas y reafirmar los lazos de unión entre todos los implicados, ya sea entre empresas, o entre los sectores público y privado.

Pantxo Bedialauneta, Urrezko ARZAK sariaren irabazlea

Pantxo Bedialauneta 12 urte Kantabriko tabernan lanean ibili ondoren, ezin izan zion ezezkorik esan bere taberna propioa izatearen erronkari.

1. Zerk animatu zizun zure negozio propioa izatera?

Eladino, aurreko jabeak ostalaritza mundua oso ondo irakatsi zidan. Bera negozioa uztekoetan zebilen eta negozioaren jabe egitea proposatu zidanean ezin izan nion ezezkorik eman. Erabaki bat hartu behar dudanean, bai edo ez segituan esaten dut; ez zait gustatzen buruari bueltak ematen ibiltzea. Nahiko ausarta naiz, eta familia nuenez, nire buruari esan nion: "hau da momentua, aurrera!"

2. Noiztik zabilta pintxo munduan?

Tabernan hasi ginen geldika-geldika pintxo errazak egiten. 2005ean "Los 10 mejores bares de tapas de España" lehiaketan Rafael García Santos kritikaria zen epaimahaia-tako bat, eta bere iritzia jaso nahi genuenez, partehartzera animatu ginen. Lehiaketa horretan 10en barruan gelditu ginenez, Bizkaia Martxan lehiaketan partehartu genuen beste batzuen iritzia jasoteko. Lehiaketa honetan bigarren gelditu ginenean, eta maila berdinean mantendu nahian, beste lehiaketetan parte hartzen gabiltza.

3. Zerk motibatzen zaitu lehiaketa gastronomikoetan partehartzera?

Batez ere jendea ezagutzeak. Baina baita norbera gainditu eta ezagutzera emateko. Horietaz aparte, ez dut nahi lehiaketa bat irabazi eta listo, baizik eta maila hori mantendu edo hobetu nahi dut.

4. Zure negozioak zer nolako harremana du turismoarekin?

Azken urteetan hemen Ondarroan asko. Ondarrutar asko etortzen dira pintxo berriak probatzera, baina hasiera batetik hona turista asko etortzen da. Lehiaketek ezagutzera eman naute, eta kanpoko jende asko etortzen da, jakinda nora datozen. Lehiaketa askotara Ondarroa izena eramaten saiatzen naiz.

5. Nola ikusten duzu eskualdeko turismoa?

Lea Artibaik asko du erakusteko; izugarriko kostaldea dugu, baita Calatrava bezalako zubia, Ziortza... eta Amoroto bezalako herri txikiak bere xarma berezia dute.

Laburrak

Alsaciara bisita teknikoa

Landa Garapen Elkarteak antolatuta, Lea Artibai eskualdeko Alkate (Aulesti, Ondarroa, Lekeitio, Gizaburuaga eta Mendexa), Zinegotzi (Markina-Xemein, Berriatua eta Ispaster) eta garapen teknikari batzuk, Gabino Martínez de Arenaza Bizkaiko Turismo Zuzendariarekin batera, Alsaziako Pays de la Petite Pierre Eskualdeko turismo garapena ezagutzera joan dira pasa den abenduan. Eskualde hau oso aberatsa da turismo arloan, bai ondare, bai natur baliabideen aldetik, eta bertan egiten ari diren esperientziak ezagutu ahal izan ditugu. Adibidez, turismo antolakuntza, erakunde publiko eta pribatuen arteko hartu emanak, Frantziako lehen bio- hotela, Gabonetako kultur programazioa, Naturaren Interpretazio Zentroa Les Vosges du Nord parke naturalean eta Lichtenberg gaztelua.

Lekeitioko Udala eta Elizbarrutiko Arte Sakratuko Museoaren arteko Hitzarmena

Lekeitioko Udalak eta Elizbarrutiko Arte Sakratuko Museoak hitzarmen bat sinatu dute Bizkaiko Ondare Erlijiosoaren Difusio Planaren baitan. Hitzarmen honen bidez, Lekeitioko ondare erlijiosoa bai herritarrei, bai bisitariei, zabaldu eta ezagutarazi ahal izango dugu. Beteko diren zenbait ekintza honako hauek dira: Panel informatiboen instalakuntza, elizaren ordutegia luzatu, bisita gidatuak, audio-gidak ipini, bisita didaktikoak, Andra Mariaren Zeruratzea Elizari buruzko liburua eta erakusketak ondareari buruzko.



Arrantza eta turismoa. Produktu berriak sortzen

Lekeitioko udalak arrantza eta turismoa erarik probetxugarrienean lotuko dituen proiektu aitzindari bat abian jartzea aztertzen du. Italia bezalako herrialdeetan duela urteak Turistak arrantza itsasontzietan eramaten oinarritzen den eta Italia bezalako herrialdeetan duela urteak abian dagoen ekimen bitxia ezagutu zuten duela hilabete batzuk Lekeitioko Udaleko ordezkariak.

Gai honen inguruan, Lekeitioko Udalak, Lekeitioko Arrantzaleen Kofradia, Azti eta Itsasemendikoi-ko ordezkariarekin batera, Asturiasen ospatutako Sagital proiektuaren transferentzia jardunaldietan hartu du parte joan den azaroan.

Galizia, Asturias, Kantabria eta Euskal Herriko arrantza alorreko ordezkariak ikerketa tekniko eta juridikoen azken emaitzak ezagutarazi, eta turismo-arrantza jarduerak abian jarri eta garatzeko behar diren laguntza baliabideen berri ematera zuzenduak izan ziren jardunaldiak.

Lekeitiok batez ere arrazoi bi dauzka arrantza-turismo esperientzia honetan: alde batetik, erakargarritasun berriez osatuz, arlo hau dinamizatuko duen turismo esperientzia berria da. Turistek gertutik ezagutu ahal izango dituzte arrantza, eta portuko ohitura eta giroa. Bestalde, arrantzarako itsasontziak, lanean ez daudenean, turismo itsasontzi bezala erabili ahal izango dira; hau da, Portuan ordu pare bat edo gehiago geldi egon beharrean, itsasoan zehar txango bat egiteko prest dauden pertsonekin atera ahal izango dira. Honek, arrantzaleei aparteko diru kopurua eskuratzeko aukera eman, eta turistek esperientzia aparta eskainiko lieke, ingurua sakonean ezagutu eta itsasoa eta itsasoko bizitzarekin zerikusia daukan guztia ezagutzen dutenen eskutik, kostaldea, eta bai kostea eta arrantzari buruzko hainbat istorio ezagutzeko aukera izango luketelako.

Gainera, Lekeitioko abian dira dagoeneko itsas-turismoarekin zerikusia daukaten eta oso ondo funtzionatzen duten ekimenak, esaterako, "Playa de Ondarzabal" Itsasontzirako bisita gidatuak edo Trinteko Etxeko Itsas-Eskola programan egiten diren kofradia eta kontserba etxeetarako bisitaldiak. Azken helburua, itsas-jardueraren aniztasunari laguntzea da, baina, arlo honetan lan eginez, arrantza-leek eurak izan daitezkeen haien jarduera nagusia osatuko duten jarduerak desberdinak kudeatuko dituztenak.



El Ayuntamiento de Lekeitio estudia la puesta en marcha de un proyecto pionero que unirá de forma muy provechosa la pesca y el turismo. Lekeitio está interesado en esta experiencia de pesca turismo fundamentalmente por dos motivos: por una parte, se trata de una novedosa experiencia turística que dinamizaría el sector dotándolo de nuevos atractivos. Los turistas podrían conocer de cerca el mundo de la pesca, las tradiciones, el ambiente del puerto, etc. Por otra, porque las embarcaciones pesqueras mientras no estén faenando, podrían ser utilizadas como embarcaciones turísticas; es decir, en lugar de permanecer un par de horas o más amarradas en el Puerto, podrían salir a navegar con las personas interesadas a bordo. Esto reportaría unos beneficios extra a los propios pescadores y una experiencia única a los turistas, que conocerían el litoral y multitud de historias relacionadas con la costa y la pesca de mano de personas que conocen profundamente su entorno y que pueden enseñarles todos los detalles relacionados con la mar y la vida marinera. Además, en Lekeitio existen aspectos relativos al turismo pesquero que ya están en marcha y funcionan de manera óptima, como son las visitas guiadas al Barco Playa de Ondarzabal o las visitas a la cofradía y conserveras que se hacen dentro del programa Itsas- Eskola del Trinteko Etxea.

INFORMAZIO GEHIAGO

Lea Artibaiko Garapen Agentzia
Turismo Arloa
Sabino Arana, 14, 48280 Lekeitio
Tel: 94 6034111 • Fax: 946034113
e-mail: nirusta@leargarapen.org
www.learjai.com • www.leaibarra.com



Lea Ibarreko
Udala Mankomunazgoa

